

789. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

Xedea

Udal igogailu eta ate automatikoen mantentze zerbitzua esleitzea.

Aurrekariak

Bakarra: 2016ko abenduaren 27an izandako Tokiko Gobernu Batzarrean Udal igogailu eta ate automatikoen mantentze zerbitzurako oinarriak onartu ziren eta deialdia zabaldu zen.

Argudioak

Lehenengoa: Aurkezteko eskaintza guztiak aztertu ondoren, lizitazioaren irabazlea Orona S.Coop. izan da.

Bigarrena: Orona S. Coop. enpresak baldintza pleguetan ezarritako behin betiko bermea jarri du.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: Bermeoko Udal igogailuen eta ate automatikoen mantentze zerbitzu kontratua ORONA S.COOP. enpresari esleitzea 22.698,24 eurogatik, BEZ kanpo. (Urteko prezioa 11.349,12€ BEZ kanpo)

BIGARRENA: Honen berri Errenta eta Ogasun Sailari ematea jendaurreko zabalkunde gastuak enpresari ordainarazteko.

Bermeon, 2017ko maiatzaren 29an

ALKATEA

NIRE AURREAN
BEHIN-BEHINEKO
IDAZKARIA

